# IBILALDIA 2015

## 1go GAZTE MUSIKA TALDEEN emanaldia

**Ikastoleetako musika taldeek Ibilaldia 2015ean merezi duten lekua eskaintzeko asmoarekin, 1go GAZTE MUSIKA TALDEEN EMANALDIA antolatu dugu. Ibilaldi egunean BilboRockean ikastoletatik ateratako taldeekin kontzertua egitea da gure asmoa, horretarako 8 talde lortu behar ditugu Ibilaldirako.**

### PARTE HARTZEKO oinarriak

*

Bizkaiko Ikastolekin lotura duten musika taldeei zuzendua eta diskoetxe batekin inolako kontraturik ez duten talde eta bakarlari guztiek hartu ahal izango dute parte. Ez da inolako mugarik jarriko musika estiloari dagokionez.

*

Hizkuntzari dagokionez, euskaraz abesten duten taldeek lehentasuna izango dute.

*

Talde edo bakarlari bakoitzak 3 kanta bidali beharko ditu eta taldearen informazioa (biografia laburra, argazkia eta harremanetarako helbidea) bidali beharko ditu Ibilaldiko posta elektroniko honetara: **ibilaldia@ikastola.net**. Kantak bidaltzerakoan arazoren edo zalantzaren bat izanez gero jarri Ibilaldiarekin harremanetan **( ibilaldia@ikastola.net )**

*

Kantak jasotzeko epea **apirilaren 26an** bukatuko da.

*

Aurkezten diren talde guztietatik 8 hautatuko ditu epaimahaiak Ibilaldia egunean Bilbo Rocken jotzeko.




HARREMANAK > **ibilaldia@ikastola.net**

ikastolenelkartea

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO